



EÑAUT ELORRIETA

IRTEERA ARGIAK

Datorren **Abenduak 1ean Arriaga Antzokian** aurkeztuko du zuzenean **Eñaut Elorrietak “Irteera argiak”** bere disko berria, **19:00etatik aurrera**.

Irteera argiak Eñaut Elorrietak azken urteotan garatutako ibilbidearen ondorio zuzena da. Oso gaztetan kantuan hasi zenetik urrats bat harago egin du proiektu bakoitzean, beti gorantz, sorkuntzan, interpretazioan, eskenatokiaren gaineko agerpenetan eta, batez ere, publikoaren aurreko perzeptzioan.

Aukera ezinhobeagoa du Bilboko publikoak lan berri honen Bizkaiako estreinura joan eta kantariaren eskutik abesti berrion zapore gozoa bezain sentikorra eskuzabalki jasotzeko. Lan berria erabat sinesgarria eta atsegina baita, eta neurri handi batean baita hunkigarria ere.

Disko berriko abesti sendoez gain, bere errepertorio esanguratsuaren esentzia ere ekarriko du Eñautek Bilboko kontzertura, haseratik erakutsi dituen zintzotasuna eta benetakotasuna eskenatokira ekarrita. Batetik, barruan dituen kezkek eta sentipenak kantu eder bilakatu dituelako eta hala eskaini dizkigulako, ondoan gauzka kantariak, bihotz berekoak garelako sentierazten digularik. Bestetik, kantuek musikaren naturalitateari erantzuten diote, ondoan dituen musikari bikainen lana eta eragina jasoaz, kantua oinarria galdu gabe, makinaren erabilpen hutsaletik urrun, apaingura soberakorik gabe. Kontzertuak, horrela, humanitatean irabaziko du. Musikaren magia jotzaile talentoa, trebeziaren eta elkarren arteko konplizitatearen baitan dagoela agerian utziz.

Doinu-oinarri iradokitzaile honen gainean kantaria, bere ahotsaren beroaz, tesitura eta forma berrietan esperimentatzen du. Ludiko eta jostari azaltzen da, bare eta zuzen, gure bihotzean barrena bide egiten duen bitartean.

Aspalditik dator Eñaut Elorrieta eta urrutira doa, baina hurbil dago beti. Eta ahalegin honetan erakusten duen kemena eredugarria iruditzen zaigu, bere zereginean etenik gabe ikastea eta hobetzea baitu helburu, kantuen bidez gizakion barrua behin eta berriz eguzki argitara jarritz, gure arima ospelak epeltzeko saiakera amaigabea.

Aurkezpena:

Abenduak 1, igandea, Arriaga Antzokia

19:00etan